

Hondakin arriskutsuen kudeaketa-zerbitzua kontratatzeko lizitazio iragarkia

1.- Erakunde esleitzaila.

- a) Organismoa: Debagoieneko Mankomunitatea.
- b) Espedientea bideratzen duen bulegoa: Idazkaritza Nagusia.
- c) Dokumentazioa eta informazioa lortzea.
 - 1.- Bulegoa: Debagoieneko Mankomunitateko Idazkaritza Nagusia.
 - 2.- Helbidea: Nafarroa Etorbidea, 17.
 - 3.- Herria eta posta-kodea: Arrasate-Mondragón, 20500.
 - 4.- Telefonoa: 943793399.
 - 5.- Telefaxa: 943770854.
 - 6.- Korreo elektronikoa: kontratazioa@debagoiena.net
 - 7.- Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.debagoiena.com
 - 8.- Dokumentuak eta informazioa lortzeko epea: 15 egun natural iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengotik zenbatzen hasita.
 - 9.- Espediente zenbakia: 2012/08 zerbitzuak

2.- Kontratuaren xedea.

- a) Kontratu-mota: zerbitzu kontratua.
- b) Xedearen deskribapena: Garbiguneetan eta Mankomunitateko beste Zerbitzu batzuetan bildutako etxeetako hondakin arriskutsuak kudeatzea.
- c) Lotekako zatiketa eta zenbakia: ez dago lotekako zatiketarik.
- d) Lana egiteko lekua: Debagoiena.
- e) Betetzeko epea: bi urte.
- f) Luzapenak: bai, beste bi urtez.

3.- Tramitazioa eta prozedura.

- a) Tramitazioa: ohikoa.
- b) Prozedura: irekia.
- c) Enkante elektronikoa: ez.
- d) Esleipen irizpideak:
 - Proposamen ekonomikoa: % 80.
 - Txosten teknikoa: % 20.

4.- Kontratuaren balioaren zenbatespena: 108.120 €, BEZ kanpo.

5.- Enkantearen oinarritzko aurrekontua: Zenbateko garbia: 2.280 €/hileko. Guztira: 2.759 €/hileko.

- Hondakin arriskutsuak eduki dituzten ontziak kudeatzeagatik: Zenbateko garbia: 380 €/tonako. Guztira: 418 €/tonako.
- Pintura-hondakinak kudeatzeagatik: Zenbateko garbia: 480 €/tonako. Guztira: 528 €/tonako.

- Aerosolak eta gai kimikoak kudeatzeagatik: Zenbateko garbia: 1.910 €/tonako. Guztira: 2.101 €/tonako.
- Disolbatzaileak kudeatzeagatik: Zenbateko garbia: 320 €/tonako. Guztira: 352 €/tonako.
- Itzalgailuak kudeatzeagatik: Zenbateko garbia: 4.240 €/tonako. Guztira: 4.664 €/tonako.

6.- Bermeak.

- Behin behinekoa: ez da eskatzen.
- Behin betikoa: 5.380 €.

7.- Kontratistaren berariazko betebeharrak.

- Kontratu honen helburu diren hondakin arriskutsuen kudeatzaile izateko baimena.
- Hondakin arriskutsuak garraiatzeko baimena.

8.- Eskaintzak edo parte hartzeko eskariak aurkeztea.

- a) Aurkezteko epea: 15 egun natural iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengotik zenbatzen hasita. Epearen azken eguna larunbata bada hurrengo lanegunera arte luzatuko da.
- b) Aurkezteko era: Administrazio Klausula Partikularren Agirian zehaztutakoa.
- c) Aurkezteko lekua:
 - 1.- Bulegoa: Debagoieneko Mankomunitatea, Idazkaritza Nagusia.
 - 2.- Helbidea: Nafarroa Etorbidea, 17.
 - 3.- Herria eta posta kodea: Arrasate-Mondragón, 20500.
- d) Enkantegileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: 3 hilabete.

9.- Eskaintzak irekitzea.

- a) Deskribapena: 2. sobrea irekitzea, "Txosten Teknikoa".
- b) Erakundea: Debagoieneko Mankomunitatea. Nafarroa Etorbidea, 17.
- c) Herria: Arrasate-Mondragón, 20500.
- d) Data eta ordua: proposizioak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren laneguna, hau larunbata denean izan ezik, kasu honetan hurrengo lehen laneguna izango baita. Goizeko 10:00etan. 2. gutun-azala irekitzea.

10.- Iragarkien gastuak: esleipendunak ordaindu beharko ditu.

Arrasate, 2013ko urtarrilak 10a.- Lehendakaria.